

LEZ 2030



LEZOKO 2030 AGENDA

- Prozesua eta diagnosiaren azalpena -

LEZ  2030
izan herri gile


Lezoko Unibertsitateko Udala


izadi21

AURREKARIAK



LEZOKO AGENDA 21:

Udaltalde 21 Oarsoaldea (2004-2006)

Lezoko Iraunkortasunerako I. Ekintza-plana
(2006an osoko bilkuran onartua)

Eskolako Agenda 21 (2008-2009 ikasturtetik)

Ingurumen iraunkortasunean egindako ibilbidea
(hondakinak, jardueren kontrola, bioaniztasuna
eta paisaia, energia, etab.)

NAZIO BATUEN GAILURRA: GIH ETA 2030 AGENDA



LEZO 2030 PROZESUAREN HELBURUAK



LEZO 2030 PROZESUAREN GAKOAK:

✓ **¿Tokiko iraunkortasunerako plan integrala izango da:**

Hau da, iraunkortasunaren alderdi oro barneratuko dituen epe luzerako plana izango da.

✓ **Hasierako diagnostia**

Udalerriko egungo egoeraren argazkia

✓ **Lezo 2030 Agenda estrategikoa osatzea**

Ikuspegia definitzea (zer nolako udalerrria nahi dugun laburbiltzen duen esaldia)
Helburuak zehaztea (orokorrak eta zehatzak)



LEZO 2030 PROZESUAREN HELBURU ZEHATZAK

- ✓ Lezoko Udaleko sail edo arlo ezberdinentzat kudeaketa errazteko tresna garatzea.
- ✓ Udalak egiten dituen lanen inguruko informazioa zabaltzea.
- ✓ Udalerriaren garapen-mailaren egoerari buruzko datuak jaso eta interpretatzea (iraunkortasunaren alderdi eta ikuspegi ezberdinetatik).
- ✓ Udal-kudeaketan herritarren parte-hartzea txertatzeko beste esperientzia aberasgarri bat garatzea.

TOKIKO 2030 AGENDAK OSATZEKO METODOLOGIA OROKORRA

TOKIKO 2030 AGENDA OSATZEKO ESKEMA



Iturria: EAE-ko Udalerrietarako Tokiko Agenda 21-eko Ekintza Planak Berrikusteko
Gida Metodologikoa (IHOBE, 2011)

LEZO 2030 DIAGNOSIA

ATALAK ETA DATU BATZUK

DIAGNOSIA: LURRALDE- ARLOAK

- Lurralde antolaketa eta hiri-plangintza
- Bioaniztasuna eta natura-ingurunea
- Mugikortasuna eta garraioa
- Ura
- Hondakinak
- Energia
- Klima-aldaketa eta inpaktu globala
- Ingurumen-kalitatea (atmosfera, zarata, lurzorua)
- Arriskuaren kudeaketa eta ekonomia-jarduerak
- Udalekoak ez diren erakundeengatik ingurumen-kudeaketa



DIAGNOSIA: GIZARTE ARLOAK

- Biztanleria
- Ongizatea eta gizarte inklusioa
- Osasuna
- Hezkuntza
- Euskara
- Kultura
- Kirola
- Etxebizitza



DIAGNOSIA: EKONOMIA-ARLOAK

- Ekonomia-garapena
- Lan merkatua



DIAGNOSIA: GOBERNANTZA TOKIKO IRAUNKORTASUNEAN

- Udal-administrazioaren ingurumen-kudeaketa
- Herri-partaidetza
- Komunikazioa eta sentsibilizazioa
- Barne koordinazioa, zeharkakotasuna eta gardentasuna



LURRALDEA ETA HIRI-PLANGINTZA

LEZ  2030
Izan *hervigile*

- Landa erabilerara bideraturiko **lurzoru urbanizaezinak** hartzen du lurzoru guztiaren **%81**. Plan Orokorrak lurzoru hauek babesteko estrategiak zehazten ditu **nekazaritza, basogintza eta abeltzaintza** jardueraren inguruko balioagatik eta paisaiaren, ingurumenaren, historiaren eta kulturaren balioengatik, bereziki **Jaizkibelen** mugatutako eta bereziki babestutako espazioak nahiz ondoko korridore ekologikoak babesteko.
- **Plan Orokorrak berrikuspen bat** eskatzen du, Udalaz gaindiko erakunderen eskumena diren hainbat proiektu geldi egoteak baldintzatu egin baitu hiri antolamendua bera garatzeko Udalak zuen ahalmena.
- Hiriko berdegune eta ibai ibilgukuek osatzen duten Espazio libreen Sistema Orokorrak gaur egun 12 Ha hartzen ditu. Plan Orokorrak **jolaserako eta aisialdirako espazio libreen azalera nabarmen handitzea proposatzen du**, landa eremuaren babeslea izango den lerro berde bat osatzeko. Horren harira, **Altamiran Hiri-parkea** eraikitzeaz da Udala.
- Oarsoaldea Garapen Agentziaren eskutik, 2019ko abenduan **"Lezo, Eko Parke Industriala 2020-2030"** proiektua gauatzeko plana abian jarri du, industrialdeen trantsizio ekologikorako eta "ekosorkuntzarako" irizpideak ezartzen dituen egitasmoa litzateke.
- **Errekalde eta Perreneko auzoak** andeaturiko eremutzat hartzen dira. Hiritartzeko behar handia dute, batez ere irisgarritasunari begira, arrisku-eremu ugariei irtenbide bat bilatu ahal izateko.



BIOANIZTASUNA ETA PAISAIA

LEZ 2030
Izan *hervigile*



- Lezoko udalerrriak hartzen duen eremuan **Natura 2000 sarearen barnean katalogaturiko ES2120017 Jaizkibel Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) kokatzen da. Eremuaren %75 inguru jabetza publikokoa da. Udalak Jaizkibelen dituen lursailen helburu nagusiak biodibertsitatea eta ondare naturala kontserbatzea eta lehengoratzea da.**
- **Jaizkibelgo errekek** Lezo, Pasaia eta Hondarribia ur edangarriz hornitzen laguntzen dute. Nahiz eta azkeneko urteetan udalerrriko saneamenduan hobekuntza ugari egin diren, **erreka nagusietan** (Zubitxo eta Lintzirin) **kutsadura nabaria** da oraindik, batez ere industria jarduerengatik eraginda.
- **Lezon Jaizkibelgo KBE eta Aiako Harriko KBE (lotu beharreko gune nagusiak) arteko eskualdeko korridore ekologikoa aurkitzen da.** Gaintxurizketaren gaineko azpiegiturek kalte egiten diote korridore honi, eta, gainera, hori handitzeko asmoa dago, leku egokia baita logistika eta industria guneak jartzeko (Portuarekin lotura izango duen plataforma logistikoa).
- **Hirigintzaren presioa handia** da landazabaleko sektore emankorrenetan. Nekazaritzarako ezaugarri onak dituzten eremuetan industrialdeak daude egun, eta horiek presio handia eragiten dute eremu honetan.

MUGIKORTASUNA

LEZ  2030
Izan *herrigile*

- Plan Orokorrak mugikortasun alorrean **oinezkoentzako mugikortasunaren mugak** eta **garraio publikoaren eskaintza murrizta** antzematen zituen. Garraio publiko murriztak, bereziki industrialdeetara, **ibilgailu pribatuaren erabilera areagotu** egiten du.
- Hirigunea zeharkatzen duten errepideek jasaten duten **trafiko handiek oinezkoen mugikortasuna zailtzen** du, herria 3 eremutan zatituz. Hirigunea zeharkatzen duen GI-3440 bulebarizatzea konponbide gisa planteatzen da.
- **Oinezkoen mugikortasunari dagokionean** hainbat puntu ilun identifikatu ditu Udalak: Gaintxurizketako tren geltokia eta Errekalde auzoa, Iturrin industrialdea eta gasolindegia bitarteko bidegurutzea;...
- Plan orokorrean, Foru Aldundiak zehazturiko **bidegorri sareaz gain** (Pasaiaiko badia biziberritzeko Urban proiektuaren barnean ere aurreikusia), **herrigunea eta Gaintxurizketa lotuko dituen oinezko eta bizikletentzako bidea** proposatzen da.
- **Irisgarritasun-planaren (2017) betetze maila %24koa** da gaur egun. Irisgarritasun planaren osagarri gisa **Irisgarritasun plan bertikala** onartu zuen udalak. Bertan igogailu ezberdinen eraikuntza barneratzen da. Ijurko auzoko igogailua gauzatzen denean %43 eginda geratuko da.



- Añarbetik ur-horniduraren 2/3 jasotzen bada ere, azken hamarkadako joeran apur bat hazi dela ikus daiteke. **2019. urtean Añarbetik jasotakoa ur-hornidura osoaren %76'5koa izan zen.**
- 2013-2016 bitarteko datuek ur-galera %40 inguruan kokatzen dela islatzen dute. **Jaizkibel menditik hartutako uren %60 bidean galtzen da.**
- Lezotik Añarbeko saneamendu sarera bideratutako hondakin-uren **2016-2019 arteko datuak aztertuz, urteotan hondakin-uren bolumena asko murriztu dela ikus daiteke (%35'3).**
- Udalerriko etxebizitza, baserri eta azpiegitura gehienak saneamendu sare nagusira konektatuta dauden arren, Altamira auzoko etxebizitzetako ur-zikin gehienak badiara doaz zuzenean.
- Osasun publikoko sailetik emandako Monatxo eta Añarbeko uren txostenen arabera, **2014-2019 urteetan Lezoko edateko uren kalitatea ona izan da.**




HONDAKINAK

LEZ  2030
Izan *hervigile*

- Hiri-eremuko **hondakinen sorrerak 2010-2014 epealdian beheranzko joera izan bazuen ere, ondorengo urteetan goranzko joera progresiboa ikus daiteke**, 2019an (2.102 Tn) 2012ko sortze-balioetara (2.096) itzuliz.
- 2010-2014 bitartean biztanle bakoitzak sortutako hondakin kopurua 1'03 kilo/bizt./egunetik 0'63 kilo/bizt./egunekora igaro da. Aldiz, **2014-2019 epealdian, igoera progresiboa izan da, 0'95 kilo/bizt./eguneko kopurura iritsiz** (Oarsoaldea eskualdekoa 0'97 kilo/bizt./egun eta Mankomunitatekoa 1'27 kilo/bizt./egun dira).
- 2010. urtetik aurrera hiri-eremuan gaika bildutako hondakinak gorakada nabarmena izan du, bilketa osoaren %28'1 izatetik %72'8ra igaroz (biohondakinak gaika bildutakoaren %39a dira). **Gaikako bilketa osoa %71an kokatzen da.**
- 2019an Lezoko hondakin guztiaren %33a industria-eremuan sortu zen.
- Industria eremuko gaikako bilketa apur bat jaitsi da 2015etik (%37'8) 2019 urtera (33'6).



- Udalerriko elektrizitate-kontsumoari erreparatuz, **2014-2019 urte bitartean beheranzko joera ikusten da, 33.837 mWo-tik 31.438 mWo-ra igaroz** (%7'1eko beherakada).
- Sektorekako elektrizitate kontsumoari dagokionez, **zerbitzuen sektoreak Lezoko elektrizitate-kontsumoaren ia erdia hartzen du**, industria sektoreak herena eta etxebizitzak laurdena baino gutxiago. Azken urteetan etxeko elektrizitate kontsumoa nahikoa egonkorra mantendu bada ere, 2019an beherakada bat (%5'3) ikus daiteke.
- Lezon gas-sarera konektatutako etxebizitza-kopurua (%74'3) eskualdekoa (%80'8), Gipuzkoakoa (%85'4) eta EAEkoa (%81'8) baino baxuagoa da.
- Gas-sarera konektatutako etxebizitza-kopurua (%74'3) eskualdekoa (%80'8), Gipuzkoakoa (%85'4) eta EAEkoa (%81'8) baino baxuagoa da.
- **Udaleko elektrizitate-kontsumoak beheranzko joera ageri du, 2015 – 2019 artean (%9'2). Kontsumoaren 2/3 kale-argiteriari dagokio.**



- **2014-2018 urte bitarteko (biak barne) urteko orduko batez besteko PM₁₀ emisioak legeak ezartzen duen mugaren azpitik kokatzen dira.** Halere, eguneko une zehatz batzuetan kontzentrazioa nabarmen igotzen da, legeak ezartzen duen mugatik oso hurbil kokatuz.
- 2019ko apirilko Lezoko Soinu-Ingurua Hobetzeko Planaren (2019-2023) arabera, **errepideetako trafikoa da zarata gehien sortzen duen zarata-fokua eta populazioa gehien kaltetzen duena.**
- **Biztanleen %84ak 50dB(A)-tik beherako zarata maila jasaten du gaueko aldian,** hau da, populazioaren gehiengoa “gune lasaiak” izan daitezkeen gunetan bizi da.
- Udalerrian potentzialki kutsatuta egon daitezkeen 124 partzela aurkitzen dira, denera 44'9 hektareako azalera hartuz.



ARRISKUEN KUDEAKETA

LEZ  2030
Izan *herrigile*

- **Akuiferoen zaurgarritasuna, orokorrean, oso txikia da udalerrian**, hiri-eremua eta azpiegiturak dauden guneetan. Aldiz, altua eta oso altua Jaizkibel mendi osoan, hego magaletik (Olatzarretik gorantz) kostalderaino.
- Udalerriko errepide sare nagusian, Lezo hegoaldean dagoen Irun - Donostia trenbidean eta Pasaiaiko portuan garraiatzen diren merkantzia arriskutsuek izan ditzaketen eraginak dira arrisku teknologiko nagusiak.
- **Sute arriskuari dagokionean, herrigunean oso txikia da.** Aldiz, altua eta oso altua Donibane aldetik Hondarribira, Pasaiaiko mugarekiko eta Jaizkibel ardatzarekiko paraleloan, hego isurialdean.
- Uholde arriskua apenas dagoen. 500 urteko itzulketa-epealdiko egoeran, Lezotik Errenteriako Itzietara auzora igarotzeko eskaileretan eta bidegorri zatian izango luke eragina.
- Udalak herriko jarduera guztiak inbentariatuta ditu eta, hauen guztien tramitazio-lanetan dihardu.



KLIMA-ALDAKETA

LEZ  2030
Izan *hervigile*

- **Gasaren kontsumoa kontuan izan gabe, 2016-2019 urte artean 45.146 tCO₂ isuri da atmosferara, (biztanleko 1'9 tCO₂).**
- 2017an nabarmen igo ziren isurpen hauek (%18'6) eta, orduetik aurrera, beherako joera erakusten du (%3'6 2018an eta %1'0 2019an). Hala ere, isurpenak %13'2 hazi dira 2016 urtekoekin alderatuz.
- Gas-kontsumoa kontuan izan gabe, 2019an, isurpen altuena duen sektorea zerbitzuena da (emisioren %38'2), industriaren (%27'6) eta etxebizitzaren (%19'3) aurretik.
- **Egoerarik okerreanean jarrita (RCP8'5 eskenatokia), Jaurilaritzak iragartzen du, 2011-2099 aldirako, Lezoko udalerrian tenperaturaren batez bestekoa 3'6 °C igoko dela** (gutxieneko tenperaturak 3,7 °C eta maximoak 3'4 °C).
- Horrek gainerako klima-aldagaietan ondorioak ekarriko dituela ere aurreikusten da (handienetik txikienera): gau tropikalen kopurua (53'6 egun gehiago urtean), bero boladen egun-kopurua (4 egun gehiago urtean), egun beroen kopurua (103'7 egun gehiago), izozte egunak guztiz desagertzea, udarako egun kopurua (86'4 egun gehiago) eta bero-boladen maiztasuna (6'2 gehiago).



EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEA

LEZ  2030
Izan *herrigile*


- Udalak ez du materialen erosketetan edo aurrera eramaten dituen kontratazioen ingurumen irizpideak barneratzeko gaikako plan edo estrategia zehatzik onartuta. **Ingurumen Saileko teknikariak eta arkitekto teknikoak txertatzen dituzte ingurumen-irizpideak beren kontratazio eta erosketetan.**
- Udal-langileek oraingoz ez dute Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdeari buruzko prestakuntza-jarduerarik burutu.
- Udalak ez du ingurumen-kudeaketarako berezko planik, baina Plan Orokorrean, Soinu kalitatearen hobetzerako Planean, etab. txertatuta daude ingurumen hobekuntzarako neurriak.
- **Udalak energia-ziurtagiriak atera ditu bere sei eraikinetan:** Altzateko igerilekuan, Bekoerrota polikiroldegian, Haurreskolan, Musika Eskolan, Udaletxean eta Andreone Liburutegian. Orain, 4/2019 lege betetze aldera, 2030 urterako udal-eraikinen %40ak, gutxienez, A edo B kalifikazioa lortzeko eta udaleko energia-kontsumoa %35 murrizteko urratsak eman beharko ditu.



BIZTANLERIA

LEZ 2030
Izan *herrigile*

- Lezoko biztanleriaren **dentsitatea nahiko altua** da (722'8 bizt/km²), eskualdekoaren azpitik badago ere (1089'2 bizt/km²) Gipuzkoako batez bestekoaren ia bikoitza baita (379 bizt/km²) (Udalmap, 2020).
- **Biztanleriak hazkunde xume bat** izan du azken 20 urteetan, 1999tik 293 biztanle irabazi baititu (% 5eko hazkunde).
- Piramideak erakusten duen **zahartze maila handia da**, izan ere, biztanleriaren %17ek 65 urte baino gehiago ditu eta %62a 20-64 adin artean baitago.
- **Biztanleria atzerritarren bilakaera gorakorra** izan da 2004. urtetik. Azken datuen arabera (Udalmap, 2020), Lezon 269 atzerritar zeuden 2019an (biztanleen %4'4). Oarsoaldean (%6'2), Gipuzkoan (%7'6) eta EAEn (%7'4) baino biztanleria atzerritar gutxiago dago.



BERDINTASUNA

LEZ 2030
Izan *hervigile*

- **Betidanik emakumezkoen loturiko ikasketak burutzen dituzte emakumezkoek.** Halere, **urrats txikiak nabari dira.** Adibidez, lanbide-heziketako zikloetan emakumezkoak agertu dira.
- **Gizarte Segurantzako afiliazio-tasa, gizonezkoetan altuagoa da** emakumezkoen aldean, nahiz eta azken hauek goranzko joera islatu.
- Oraindik emakumezkoen errentak gizonezkoen errentarekiko ia **10.000€ko aldea** izaten jarraitzen du.
- 2014ean "**Lezoko emakume eta gizonen egoeraren diagnostikoa eta Berdintasunerako II. plana**" martxan jarri zuen (2018 urtera arteko iraunaldia izanik, **berrikuspen bat eskatzen du**) eta I. planeko ekintzen %18a gauzatu zen. Lehenengo planean jasotzen zen udal teknikari baten kontratazioa ez zen 2017 urte arte iritsi.
- Planean **berdintasunerako politikak 5 programa** nagusitan antolatzen dira: **Udal gobernantza hobetzea; Balioen aldatzea; Emakumeen ahalduntzea; Erantzukidetasuna eta denboraren erabilera, eta indarkeria sexistari aurre egitea.**
- **Hezikidetza-mahaiaren** bitartez lantzen da genero berdintasuna herri mailan. Mahai honetan udalerriko hainbat taldek parte hartzen dute: **Gaxuxa elkarteak, Lezoko emakumeak eta Sorginak.** Kuadrillategi programako kideek ere parte hartzen dute Hezikidetza-mahaian.



EKONOMIA-GARAPENA ETA LAN MERKATUA

LEZ  2030
Izan herri gile

- Lezon **industria-sektoreak** zerbitzuen sektorearekin batera duen eragina azpimarragarria da; Lezoko Balio Erantsi Gordinaren %38'1a hartzen du, beste lurraldeen ehunekoen gainetik kokatuz. Halere, **industriak pisua galdu du** udalerrri guztietan. Aldiz, zerbitzuen sektorearen garrantziak gora egin du, bai BEGri dagokionez, bai enpleguari dagokionez ere.
- Lezoko industria poligonoetan gehiengoa **tailer txikiek** osatzen dute (portuak edo enpresa handienek duten jarduerari loturiko jarduera osagarriak eskaintzen dituzten tailerrak dira, balio erantsi baxukoak).
- **Txikikazko merkataritzak gainbehera jasan** du Lezon.
- **Lehen sektoreak pisu txikia du** Lezoko ekonomian, azken urteetan gainbehera nabarmen bat erakutsiz.
- **Lezo langabezia txikia duen herria da** eskualde eta Gipuzkoarekin alderatuz (111 gizon eta 175 emakume, duela lau urte baino 67 pertsona gutxiago).
- Oarsoalderako **2017-2025 urteetarako Plan Estrategikoaren** proposamena landu (2019) eta **Biziberritze Sozioekonomikorako Eskualdeko Plan Estrategikoa** garatu berri du agentziak 2020ean zehar. Plan hauetan oinarrituz, agentziak hainbat zerbitzu eskaintzen dizkie eskualdeko herritar eta enpresei.



- Larrialdirako Laguntzak jasotzen dituzten herritarren kopurua mantendu egin da azken urteetan.
- **Langabezia tasa %8'6koa da**, Gipuzkoa mailako bataz bestekoaren ia parekoa (%8'8). **Gizon eta emakumeen arteko aldea ordea areagotu egin da azken 2 urteetan**, %3 langabetu gehiago baitaude emakumezkoen artean.
- Biztanleriaren **%18ak** 65 urte baino gehiago dauzka, Gipuzkoako (%22) eta EAEko (%22) bataz bestekoen antzera. Talde honek 2009. urtean biztanleria osoaren %13a suposatzen zuen eta 10 urte beranduago, %18a. Beraz, **gizartea pixkanaka zahartzen** ari dela antzematen da.
- **Adineko pertsonentzako egoitza-zerbitzuari** dagokionez, jubilatuetxe bat eta eguneko zentro bat daude Lezon (azken honek 15 herritarrentzako tokia du). 3. Adinekoentzako 7 etxebizitza tutelatuta daude udalerrian eta gaur egun 9 toki eskaintzen dira baina guztiak beteta daude.
- Mendetasunari dagokionez, **azken urteetan hazi egin da mendetasun-egoeran dagoen 18 – 64 adin tartean herritar-kopurua**.



- Lezok duen etxebizitza-dentsitatea, bizitoki-lurzoruan, **88 etxebizitza/hektareakoa** da (aurrerantzean, E/ha), Oarsoaldeakoa (81'2 E/ha), Gipuzkoakoa (63'7 E/ha) eta EAEkoa (47'7 E/ha) baino **altuagoa** izanik.
- Plan Orokorra 2010 urtean onartu zenetik gaur arte, etxebizitza **aurreikuspenen zati handi** bat garatu da:

Lurzoru-mota	Eremuaren izena	Etxebizitza-kopurua
Hiri Lurzorua	Isasti	16
	Algeposa 1	300
	Marrukene	176
	Maintzine	26
Lurzoru Urbanizagarria	Olatzar	120
GUZTIRA		637

- Aurreikusitako eta eraikitako etxebizitza-kopuruaren arteko aldeak beste zenbait faktoreekin erkatuz, **etxebizitza beharra dagoela** pentsatzera eramaten gaitu.
- **Etxebiden erregistratu diren eskaerek gora egin** dute gaur arte (2018an 1.000 biztanleko 52 eskabide).
- Lezon **2011n hutsik zeuden etxebizitza-parkeak %9'7a suposatzen** zuen 2011an, 1991etik 4 puntutan jaitsiz. Etxebizitza hutsen azterketa bat egina dago.
- **50 urte baino gehiagoko familia etxebizitza-kopuruak pixkanaka gorantz** egin du, 1991 - 2018 bitartean %11 haziz, harik eta %19'4ra iritsi arte.

- Orokorren ikasle kopuruaren (1.024) hazkuntza bat gertatu da 2016/17 ikasturtera arte, baina azken 3 ikasturteetan %8'4 gutxitu dira matrikulazioak.
- **Lezoko biztanleen %60'3a euskaldunak eta %22a erdaldunak ziren 2016 urtean.**
- Ama-hizkuntza gaztelera duten herritarrek nagusi dira Lezon (%51'9, 2016 urtea), euskara dutenen gainetik (%37'3) kokatuz. Egoera hau, 2006 urtekoaren alboa, okerragoa da.
- Lezoko biztanleen %29'1ak bakarrik egiten du euskaraz etxean. **Lezoko kaleetan %32'6a mintzatzen da euskaraz eta %66'6a, berriz, gaztelera.** Biztanleen %60'3a euskalduna dela kontuan izanik, esan daiteke euskara dakiten herritarren erdiak, gutxienez, gaztelera hitz egiten duela kalean.
- Lezoko Udalaren kultura-ekipamendu nagusiak Gezala Auditoriuma, Andreone Udal-liburutegia, Tomas Garbizu Musika Eskola, Ludoteka, Bekoerrotaz aspiko dantza-aretoa, eta Euskara eta Kultura Aretoa dira.
- Muiitu Lezo Estrategia, Metrominutu egitasmoa, eskola-kirola, Lezoko landa eremuko ibilbideak eta herriko ibilbide osasuntsuak eta Jaizkibelgo mendilasterketa dira azken urteotako kirol-arloko mugarri nagusienak.

LEZOKO BIZTANLEEN EUSKARAREN GAITASUN-MAILA 2016 (%)



- Lezoko Udalaren webguneko Ingurumen-sailaren atalean burutzen diren ingurumen eta iraunkortasun proiektuen inguruko informazioa dago, tartean Tokiko Agenda 21i eta Eskolako Agenda 21i dagozkionak.
- Eskolako Agenda 21etik Eskolako 2030 Agenda hezkuntza programarako saltoa eman du Lezok ikasturte honetan, eskualdeko ikastetxeekin batera. **2008/09 ikasturteaz geroztik Lezoko Udalak herriko ikastetxeei Eskolako Agenda 21 hezkuntza-programaren garapenean laguntzen die.**
- **Udalak garapen iraunkorrarekin zerikusia duten sentsibilizazio-kanpaina ezberdinak antolatu ditu** Agenda 21en I. Ekintza-plana onartu zenez geroztik: Kontsumo-arduratsuen azokak, Zubitxo Errekaren eguna, konpostajeari buruzko sentsibilizazioa, birziklapen-kanpaina, ...
- Udalaren webgunean Udal-gardentasuna izeneko atala dago, non, besteak beste, udal-kontratazioaren, akten, fakturen eta bestelako datu ekonomikoen inguruko informazioa dagoen.
- **67 elkarte daude Lezon** eta horietatik gehienak kultur arlokoak dira (%47'5).



BARNE-KOORDINAZIOA ETA ZEHARKAKOTASUNA

LEZ  2030
Izan *herrigile*

- Tokiko Agenda 21en I. Ekintza-plana onartu zenetik (2006) **ingurumen-gaiak kudeatzen dituen udal-arloa arduratu da tokiko garapen iraunkorraren kudeaketaz.**
- Lezoko Udalak ez du parte hartu Gipuzkoako Foru Aldundiak lurraldeko udalei eskaintzen zien Agenda 21eko ekintza-planak ebaluatzen eta programatzen laguntzeko foru-programan ez eta Eusko Jaurlaritzak Udalsarea 2030en kide diren udalei eskainitako Tokiko Agenda 21en jarraipen-programan ere. Hala ere, 2019 eta 2020an zehar Udalsarea 2030ek bultzatutako 2030 Agenda udaletan ezartzeko lan-taldeetako batean parte hartu du.
- **Udal-mailan ez dago Tokiko Agendaren jarraipenerako parte-hartze organo iraunkorrik** iraunkortasun-prozesuaren inguruan informatu eta emaitzen berri emateko.



LEZOKO 2030 PLAN ESTRATEGIKOA

LEZO 2030 PLAN ESTRATEGIKOAREN EGITURAREN

ADIBIDEA

IKUSPEGIA

2030 urterako zein motatako Lezo nahi dugun deskribatuko duen esaldia



LERRO ESTRATEGIKOAK

LE 5. KONTSUMO ARDURATSUA BULTZATUZ HONDAKINEN SORKUNTZAREN
PREBENTZIOA BULTZATZEA ETA HONDAKINEN KUDEAKETA EGOKIA
BIDERATZEA



JARDUERA-PROGRAMAK

P 5.2. ETXEETAKO ETA MERKATARITZAKO HONDAKINEN MURRIZKETARAKO
EKIMENAK AURRERA ERAMATEA



EKINTZAK

5.2.3. Etxeetan sortutako plastikozko ontzi eta briken murrizketarako jarduerak burutu herriko
dendekin elkarlanean

KUDEAKETA ETA PRESTAKETA

- 2030 planaren ezaugarritzea
- Jarraipen-planaren osaketa
- e-Mugi21 kudeaketa tresnaren elikatzea





**“Nous n’héritons
pas la Terre de nos
ancêtres, nous
l’empruntons à nos
enfants”**

Antoine de Saint-Exupéry





HARREMANETARAKO:

943 903 402

agenda2030@lezo.eus



izadi21

GARAPEN IRAUNKORRA ETA INGURUMENA
DESARROLLO SOSTENIBLE Y MEDIOAMBIENTE

